**E.L.A.**
***L.A.E.***

Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari atxikitako Foru Enpresa Erakunde Publikoa den Estatuko Loterien eta Apustuen Bizkaiko Merkataritzako Ordezkaritzak (ELA) Estatuko Loterien eta Apustuen Estatu Sozietateak (ELAES, SA) Foru Aldundiari agindutako funtzio eta ekintza guztiak gauzatzeko ardura du, bera baita ELAESen ordezkaria gure Lurralde Historikoan.

La Entidad Pública Empresarial Foral “Delegación en Bizkaia de Loterías y Apuestas del Estado”, (LAE), adscrita al Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, está configurada como una entidad de naturaleza pública, cuya gestión consiste en la realización de todas las funciones y actividades encomendadas por la Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado, S.A. (SELAE) a la Diputación, en su calidad de delegada en nuestro Territorio Histórico.

ELAren Ordezkaritzak ELAESen menpe dagoen Estatu Jokoa kudeatzeko ardura du Bizkaian eta eginkizun horren bidez, Bizkaian izaten diren salmenten araberako komisioa jasotzen du. Komisio hori ustiapeneko diru-sarrera nagusia da aipatu erakundearen Galdu Irabazien kontuan.

La Delegación de LAE constituye un ente gestor del Juego estatal en Bizkaia, cuya competencia tiene atribuida SELAE, y por cuya tarea en función de las ventas que se generan en Bizkaia, percibe una comisión que supone el principal ingreso de explotación, en la cuenta de Pérdidas y Ganancias de la mencionada Entidad.

ELAren Ordezkaritzaren eginkizun nagusiak honako hauek dira: Bizkaiko Lurralde Historikoan Estatuko Loterien eta Apustuen Estatu Sozietatearen menpe dauden Joko mota desberdinetako loteriak, jokoak eta apustuak (gaur egunekoak edota etorkizunekoak) kudeatzea, ustiatzea eta komertzializatzea.

Con carácter genérico se podrían señalar que las funciones de la Delegación de LAE son la gestión, explotación y comercialización de la actividad del juego en sus distintas modalidades de loterías, juegos, apuestas, presentes y/o futuros, sobre las que tenga atribuida la competencia la Sociedad Estatal de Loterías y Apuestas del Estado, S.A., en el territorio Histórico de Bizkaia.

Eta, oro har, ELAESen eta Bizkaiko Salmenta Puntu Integralen eta Mistoen (gaur egun 281) Sare Komertzial osoaren arteko bitartekotza egitea, ELAren produktuak modu egokian kudeatzeko eta komertzializatzeko.

Y, en general, la intermediación entre SELAE y toda la Red Comercial de Puntos de Venta, tanto Integrales como Mixtos –actualmente 279-, existente en Bizkaia para el adecuado y buen funcionamiento de la gestión y comercialización de los productos de Loterías y Apuestas del Estado.

Aipatzekoa da 2023ko abuztuan behin betiko baja eman zitzaiola Bilboko Salmenta-Puntu integral bati, eta horrek eragin negatiboa izan duela datorren urterako ELAESen komizioetan.

Cabe señalar la baja definitiva en agosto de 2023 de un Punto de Venta integral en Bilbao con su consecuente impacto negativo sobre la comisión de SELAE para el próximo año.

Egungo egoera erreferentziatzat hartuta, 2023ko ekitaldian zehar salmentek gora egin dutela ikusi ahal izan da, erritmo motelean baldin bada ere. Estatu mailan salmenten batez besteko igoera %3koa besterik ez da izan; gure Lurralde Historikoan, aldiz, iazko salmenta-zifren antzekoak dira. Uste dugu, urte bukaeran, salmentak iazkoen gainetik egongo direla. Horren guztiaren emaitzak datorren urtean aztertuko dira.

A lo largo del ejercicio 2023 se observan tomando como referencia el momento actual, que las ventas están remontando, pero a un ritmo lento, ya que a nivel nacional las ventas tienen una media de aumento de apenas el 3%, mientras que en nuestro Territorio Histórico las cifras de ventas son similares a las del año anterior. Consideramos que al finalizar el año las ventas van a estar un poco por encima del ejercicio anterior. Los frutos de ello se contemplarán en el próximo año.

Gure egoera finantzarioak, ohi den bezala, ELAESekin itundutako komisioen menpe daude. Merkataritza-kontratuaren formula 2020an aplikatzeak, aurreko formularekin alderatuta, komisioak % 31,28 murriztea ekarri zion Ordezkaritza honi, eta horren eragina nabaria da oraindik ere.

Nuestros estados financieros como es habitual están sujetos a las comisiones que tenemos pactadas con SELAE. La aplicación de la fórmula del contrato mercantil en 2020 le supuso a esta Delegación una reducción de las comisiones de un 31,28% frente a la formula antigua, y que, lógicamente, se continúa arrastrando.

Pandemiak eragindako salmenten beherakada nabarmenarekin eta, ondorioz, komisioen erregularizazioarekin, Erakunde honek, 2021. urtean, 2020. urtearekin alderatuta, diru-sarreren % 5,7ko jaitsiera izan zuen; baina 2022. urtean, 2021. urtearekin konparatuta, ia %8,2ko hazkundea izan du.

Con el descenso tan fuerte que hubo en las ventas por la pandemia y la consiguiente regularización de las comisiones, esta Entidad sufrió un descenso en los ingresos del 5,7% en el año 2021 respecto al año 2020, pero en el año 2022 hemos tenido un incremento de casi un 8,2% respecto al año anterior 2021.

2023an, Bizkaian, metatutako salmenten zenbatekoa %3,40 igo da aurreko urtearen aldean. Baina kontuan hartuta 2022an ELAESen komisioa kalkulatzeko formula aplikatzean salmenta puntu bat galdu dugula, horrek igoera txiki bat dakar, ia arbuiagarria,

En 2023 en Bizkaia el importe de ventas acumuladas ha tenido un aumento del 3,40% respecto al año anterior, pero teniendo en cuenta que hemos tenido la pérdida de un Punto de Venta en el año 2022, al aplicar la fórmula para calcular la comisión SELAE, ésto se traduce en un pequeño incremento casi despreciable.

Bestalde, gastuei dagokienez, langile-gastuen partidaren barruan, horien igoera nabarmendu behar dugu, bai soldatetan, bai gizarte-kargetan, 2023ko urtarrilaren 1ean plantillaren egungo erdiak kontratu-aldaketa bat izan baitzuen, lanaldi

Por otra parte, en cuanto a los gastos, cabe destacar dentro de la partida gastos de personal el aumento de gastos, tanto en sueldos y salarios como en cargas sociales, debido a que con fecha 1 de enero de 2023, la mitad actual de la plantilla tuvo un cambio de contrato, pasando de estar a

partzialean %70eko okupazioan egotetik lanaldi osoan egotera. Aipatutako kontratu aldaketa enpresaren beharra izan da, izan ere, bi urte eskasean, erretiroengatik eta uko egiteagatik lanaldi osoko lau langile galdu baitzituen.

tiempo parcial con una ocupación del 70% a estar a jornada completa. Este cambio de contratos fue debido a una necesidad de la empresa al perder por jubilaciones y renuncias varias a cuatro trabajadores fijos a tiempo completo en apenas dos años.

Ustiapen-gastuak ere handiak dira oraindik, zehazki kanpo-zerbitzuetako gastuak. Iazko gorakada handiaren ondoren (2022), ez dugu gutxitzea lortu, mantendu badira ere.

También hay que señalar que los gastos de explotación siguen siendo elevados, en concreto los gastos en servicios exteriores. Después del aumento tan grande del año pasado, 2022, no hemos conseguido disminuirlos, aunque sí se han contenido.

Salmenta-sareari dagokionez, 279 puntu komertzial ditugu, eta horien arteko koordinazioa, dagozkien arreta eta zerbitzua Ordezkaritzak berak kudeatzen ditu. Aipatu sarea gero eta modernoagoa da eta horretan zerikusi handia izan dute hurrengoek: teknologia berrien erabilerak, partaideen kontsolidazioak eta beraiek egindako kudeaketa erangikorrak batetik, eta komertzializazio arloan, merkatu-azterketek eta kudeatutako jokoen gizarte-joeren azterketek, bestetik.

En referencia a la red de ventas, estamos con 279 puntos comerciales, uno menos que en el anterior ejercicio, cuya coordinación, atención y servicio gestiona esta Delegación. La citada red sigue modernizándose, con la aplicación de las nuevas tecnologías, la consolidación y gestión efectiva de todos sus componentes, y en relación con la comercialización, con estudios de mercados y tendencias sociales de los Juegos gestionados.

Hala ere, 2024ko ekitaldian Loterien eta Apustuen bilakaera ondorengo hauek markatuko dute: ausazko jokoak, apustuzaleen joko-joerak, jokoetan izaten diren berritasunak (inplementatuak eta aztertzen ari direnak) eta, batez ere, egoera sozioekonomikoaren bilakaerak..

No obstante, serán el azar, las tendencias de juego de los apostantes, la consolidación o no de las novedades en los juegos (implementadas ya y las que están en estudio), y sobre todo la evolución de la situación socioeconómica de nuestro entorno los factores determinantes en la evolución de Loterías y Apuestas durante el ejercicio 2024.